

3000



2009ko maiatza - 8. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria



Denboraren markak Goizuetan

Antzinako megalitoetatik
Internetera



zenbaki honetan



• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren euskara zerbitzua

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**
astidiseinua.com

• **Laguntzaileak:**
Goizueta, Arano, Leitza eta Aresoko Euskara Zerbitzua.

Nafarroako Gobernua
Euskarabidea



aurkibidea

- **3**.....Aurkezpena
- **4-5**.....1994. Orain dela 15 urte
- **6**..... Baietz...! Ezetx...!
Zenbat apostu!
- **7**.....Ezetx asmatu
- **8-9**.....Romani Eskuderori
elkarrizketa
- **10-13**.....Bidaiatzea bezalakorik?
- **14-15**.....Megalitismoa
- **16-18**.....Zapo kantariak
- **19-21**.....Azaro kulturala
- **22-24**.....Eskola eta herria,
.....elkarrekin bizia
- **25**.....Txoko-sex
- **26**....."Facebook-ean hitz egingo
dugu"
- **27**.....Txistekak
- **28**.....Zure txanda



Denboraren markak Goizuetan

Antzinako megalitoetatik Internetera

Goizuetaren kokapen geografikoa berezia da. Ez dago gaurko komunikabide edo garraio bide nagusi baten erdi-erdian edo ondo-ondoan kokatuta, eta ez da, arruntean behintzat, galdutako edo despistatutako bidaiariaren pasabide. Propio etorri behar da Goizuetara.

Baina izaera horrek, bistan denez, ez du Goizuetara gainerako mundutik banatuta edo berezita utzi. Goizuetak ere jakin du historian zehar gainerakoekin harremana izaten eta haien korranteetara, mugimenduetara, ohi-turetara eta kulturetara lotzen. Baita aurrehistorian ere, artean Goizuetara bera, gaurko herria den moduan, existitzen ez zenean ere.

Eta horren lekuko edo erakusgarri da, hain zuzen ere, Xapo aldizkariaren 8. zenbakia, esku artean duzun hauxe. Herriari atera diogun “argazki” honetan, antzinako eta gaurko

arrastoak edo aztarnak aurkituko dituzu. Hasi duela 3.000 urte inguru gure lur hauetan eraikitako harrizko eraikuntzekin, eta buka gaur egun Goizuetan bertan etxe askotara iritsi diren sare sozial berriekin, Interneteko facebook-en gisakoekin.

Denborak aurrera egin du Goizuetan, eta denborak bere markak utzi ditu gure herrian. Marka horien berri jaso dugu, besteak beste, aldizkariaren: harrespil eta trikuharri zaharrak, esaterako, gure lurretan aspaldian bizi ziren haien aztarna zuzenak. Edo zapokantarien azentua: goizuetarron euskararen azentu hori, izan ere, ez da egun batetik bestera sortutakoa, urteetan eta mendeetan zehar landutakoa izanen da, ziur asko, eta badu aspaldiko euskararen usain ederra gainera. Eta hain atzera joan gabe, duela 15 bat urteko kontuak ere baditugu ikusgai eta ira-

kurgai. Urte gutxi dira, baina zenbat aldatu den bizimodua urte gutxi horietan. Garai bateko 50 urtetan baino gehiago aldatu da azken 15 urte hauetan. Eta, bukatzeko, gaurko irudiak ere baditugu. Goizuetan zaharraren usaina suma badaiteke ere, berrikuntzak ere iristen dira hona, eta Xapoko artikulua batean azaltzen diren Interneteko sare sozialak, gure etxeetara eta herramatarara ere iritsi dira.

Hori dena Goizuetara da, Goizuetaren parte bat behintzat. Hori izan ginen, eta hori gara, besteak beste, eta horrek guztiak osatzen du gure nortasuna, onerako nahiz txarrerako, neurri batean edo bestean. Hori ezagutzea edo jakitea ona dela iruditzen zaigu, eta horregatik bildu eta jaso dugu zureganaino iritsi den aldizkari honetan. Gustuko izanen duzulakotan, hurrengora arte.



Inoiz baino partaidetza handiago izan zuen bertso paper lehiaketak. Argazkian maila ezberdinetan sarituak suertatu zirenak.



Umore Onako Mus eta Trukeko Txapelketen irabazleak argazkian.

1994

Orain dela 15 urte

U sadioari jarraituz, atzera begirada botatzeko erabiliko ditugu aurtengo Xapoko orri pare bat. Ohi baino atzerago joanen gara gainera aurtun, 15 urte. 1994ko berriak oroitaraziko baititugu ondorengo lerroetan. Ttipi-ttapa aldizkariko Goizuetako kronikak zioenez, Guraso Elkartek zuzen demonio antolatu zuen erregeen kabalgata. Ilunabar horretan ateri egin zuen, baina aurreko egunak euritsuak izan ziren. Errepideetan eta baserrietako bideetan kalte handiak sortu zituen gainera urak. Orduantxe eman zion Nafarroako Gobernuak Udalari herri tik Gipuzkoako muga bitarte karretera zolaberrituko zuelako hitza.

Otsailaren erdian ospatzekoak ziren inauteriak. Orduan ere krisia zen hizpide, baina ez zen batere nabaritzen mozorroek prestatutako egitarauan. Hilabete horretan adierazi zuen ofizialki Udalak, 18 etxebizitza babestu eraikitzeko asmoa. 6 kuartel zaharrean eta beste 12ak "paseabide berriaren" ondoan.

Miel Joxe Lekuona alkatea eta Donostiako zinegotzi Gregorio Ordoñez zenaren arteko eztabaida gogor baten berri ere ematen zen Ttipi-ttapan. "Cuatrero" deitu zion Ordoñezek Lekuonari, honek Goizuetako artzainen aldeko adierazpenak egin zituelako irrati batean.

Mozorroen taldearen eredia 1994an finkatu zen, baina ez iskanbila eta haserrerik gabe. Taldean emakumeen partehartzearen aldekoen eta kontrakoen artean sortu zen eztabaida. Udalak eta Umore Onak berdintasunaren aldekoak babestu zituen. Dena den, "kontutako larunbatean" "nolabaiteko akordioa" lortu omen zuten bi sektoreek. Bestalde, urte horretan Xanti Bakero hautatu zuten lehendakari Umore Onakoek eta Felix Iñurrategi zenak, euskaltegiak antolatutako diapositiba emaldia eskaini zuen Elkartean.

Urtean zehar burutu beharreko hainbat ekitaldiz osatutako Arte eta Kultura kanpainaren berri eman

zuen Udalak otsailaren bukaeran. Trebeska dantza taldea, Kika, Koko eta Moko pailazoak eta Jon Bergaretxe abeslariaren emanaldiak aurreikusten ziren besteak beste.

Irakaskuntzaren erreformaren gaia ere pil-pilean zegoen 1994ko udaberrian. Iruñeko Hezkuntza Departamenduak 14 urte arte herrian bertan ikasteko aukera ziurtatu zien Udalari eta Guraso Elkarteari. Hortik 16 urte bitartekoa Hernanin egin ahal izatea eskatzen zuten Goizuetarrek, baina Iruña Leitzaren aldekoa zen. Aipagarria da, gaia aldatuz, 30 bikotek izena eman zutela martxoan Gazte Asanbladak antolatutako pala txapelketa mistoan. Apirilean, Hartzuri soka tira taldearen saioa izan zen Nafarroa eta Gipuzkoako beste zazpi talderen kontrako lehian. Egun berean, hilaren 23an, Maixa eta Ixiarren eta Haritza taldearen gaupasa antolatu zuen H.Bk.

Nafarroako Gobernuaren gomen dioak jarraituz Gorostinera zaborra



Umore Ona futbito taldea 2. mailara igo zen 1994an.



Hartzuri sokatira taldea Nafarroako 2. mailako txapelketa irabazi zuen egunean.

ekartzea galarazi zion Udalak “El Leon” zerbeza fabrikari. Aranoko zabor hori lohi bihurtzen zen eurik harrapatu orduko eta malda behera joaten zen etxeetako basurak ere berarekin eramanez. Maiatzaren 28an ekitaldiz gainezka zegoen herria. Bertso Eskolak afaria antolatu zuen Umore Onan, Sorozabal, Zeberio eta Loidisaletxe bertsolariekin. Gazte Asanbladak berriz, rock kontzertua antolatu zuen pilota plazan Karkaxa, Brankan eta Animavili taldeekin.

Denboraldi paregabea eginez Umore Ona futbito taldea Gipuzkoako II. mailara igo zen maiatzean liga bukatutakoan. 30 partiduetatik 20 irabazi zituzten goizuetarrek, 4 berdindu eta 6 galdu. Eskolarteko bertso txapelketan ere emaitza onak eskuratu zituzten herrikoek, Leitzan burututako eskualdeko kanporaketan. Bat batean Eneritz Arozenak irabazi zuen, eta idatzian Iزارo Goikoetxeak, Ibai Zubirik eta Olaia Lekuonak lehen saria eskuratu zuten, bakoitzak bere mailan noski.

Lehentxeago aipatutako paleta txapelketan Mari Jose Etxeberriak eta

Joxe Luix Apezetxeak irabazi zuten. Sokatira taldeak berriz zapela eskuratu zuen Errotxapean jokaturako Nafarroako II. mailako finalean. Hau guztia ekainean gertatu zen. Uztailean, berriz, Dani eta Ainara NARBATE bigarren gelditu ziren Iruñean ospatu zen Nafarroako trikitixa txapelketan. Jon Huitzik, bere aldetik, Iruñako Udalak antolatutako ipuin lehiaketa irabazi zuen “Bizitzak bizitzea merezi ez duelako” izenburuko ipuin “beltzarekin”.

1994ean ere fiestak ikaragarriak izan ziren. Zeozer nabarmentzeagatik esan Amabirgin bezperan kontzertua ospatu zela Bittor Aiepe, Lin Ton

Taun, Sutagar eta Bizkar Hezurra taldeekin.

Udazkeneko lehenengo Ttipi-ttapa kronikak zioenez, 25 ikaslek hasi zuten kurtsoa musika eskolan. Urrian ireki zuen Udalak bestalde, babes ofizialeko etxebizitzetan apuntatzeko epea. 28 lagunek izena eman zuten. Herri Olinpiaden beste edizio bat antolatu zuen Umore Onak, arrunt arrakastatsua gainera, eta dantza taldeko irakasleak omendu zituen elkarte horrek azaroaren 5ean.

Egun berean jokatu zen Egin Mus txapelketa. 13 bikotek parte hartu zuten eta Ximon-Txamo eta M.Elizegi-A.Rodriguez bikoteek lortu zuten herrialdeko finalean jokatzerako txartela. Azaroko ekitaldiekin bukatuz esan, Mikel Markezek kantatu zuela Gaztetxean hilaren 26ean.

Abenduan bertso paper lehiaketaren beste edizio bat antolatu zen; Udaletxearen beheko solairuan kontsulta berriaren obrak hastear zuden; Jose Manuel Oiartzabalek irabazi zuen I. Oilagor txapelketa; eta San Andres egunean eskolan Lizaso eta Egaña bertsolariek burututako saioaren berri ematen zuten Ttipi-ttapa aldizkariak 1994ko azkeneko zenbakian.



Umore Onak dantza taldeko irakasleei eskainitako omenaldiaren irudia.



Baietz...! Ezetz...!

Zenbat apostu!



Nork ez ditu erabili goiko hitz hauek? Nik uste gehintxoena erabili izango ditugula, denak ez esateagatik.

Orokorrean Goizuetarrak apostuzaleak al gara? Lehiakorrak al gara? Luze eztabaida dezakegu honen gainean, baina ez da nere asmoa inor aztoratzea.

Garai bateko apostu "ttiki" edo "itxeko" apostuak bildu nahian, galdezka aritu naiz. Norgehiago horretan, apostu xebreak eta bitxiak aurkittu ditut, denak ere, hemen herrian pasatakoak dira, eta ingenio punttu batekin egindako apostuak batzuk.

Bildutako gehienak indarra eta erresistentzia erakusten dutenak izan dira.

Goizuetatik Leitzara oinez 2 ordu t'erdin baietz! Diru dexente omen zegoen mahai gainean eta bidean traba asko jarri omen zizkionten: bidea busti lohia egiteko, pausoak ematea zailago izan zedin; edo eta kurbak osoak hartu beharra eta abar. Baino traba eta guzi irabazi egin omen zuen.

Ingenioa erabili zutenak ere asko izan dira. Baietz momentu batean 25 kg patata jan beste lagun batekin! Ta zerria eraman omen zuen laguntzat, eta noski baita apostua irabazi ere!

Beste batek, baietz 10 kg gehio pisatu momentu batetik bestera! 10 litro ura eran eta apostua irabazi, edo eta poltsikoan pisuak sartu zituenak gehio pisatzeko eta irabazi zuena ere!

Baserritar batek apostua egin omen zuen herriko sekretarioarekin; herriko plazatik hasi eta bere baserriko atea ukittu eta buelta herrira. Abiatu omen zian eta baserritarrak aurre hartu nahiz eta sekretarioa bestea bino bastante gazteago izan. Izugarritzko aldea hartu zionean

sekretarioa lotsatuta, apostua bukatu gabe, mendian gordeta gelditu omen zen, jendearen adar jotzeak ez jasotzeko.

Beste gizon batek; baietz 6 oilasko jan! Mahai aurrean jarri eta hasi omen zen bat bestearen atzetik oilaskoak jaten eta 6ak jan zituenean etxeko andreaki zazpigarrena eskatu omen zion; horrek, beldurtuta eta kalte egingo ziolakoan, ez zion atera.

Bitxietako bat, baietz 5 arrautza ustel jan! 5ak jan zituen baina bosgarrena ustela eta txitxoa sortzen hasia zegoela jan omen zuen, denbora dexente gaixo egon omen zen gizona.

Orain gutxi egindako apostu baten berri ere jakin dut; gazte batek plazako itturitik hasi eta Manduegiko ikurrina ukittu ta buelta plazara, baietz 2 ordutan! Gaztea sasoitsua izaki eta 1'33" egin du, jonetorria.

Ikusten denez gaurko egunean ere egiten dira honelako apostuak; kuriosoak izan edo ez, ez ahaztu guri kontatzea.



EZETZ ASMATU

Bateren batek pentsatu du gaitztoak garelako eta urteen joana gogorazten tematuta gaudela Xapo aldizkarian. Egia da, argazki zaharrak erakusteko ohitura daukagu, eta argazki zaharrek age-rian uzten dute urteak aurrera doazela eta denok zahartzen garelako. Baina ez al da ariketa polita lehen nolakoak ginen gogoratzea, edo gure ingurukoak ere nolakoak ziren gogoratzea? Ziur asko, gainera, argazkiak ikusi eta hainbat

oroitzapen esnatu dira gure gogoan, hortxe ahaztu samar genituen horiek. Bada, horretarako dituzu argazki hauek. Memoriaz nola zabil-tzan ikusteko, eta hor gordeta dauzkazun oroitzapen horiek berreskuratze-

ko. On egin.





8

elkarrizketa

ROMANA ESKUDERO

Romana Eskudero Ezkurra, 1919ko urriak 29an jaio zen Yandenen. Josten aritua da eta bost seme-alaben ama da, baina beste arrazoi batengatik jo dugu bere etxeko atea gaurkorian: argiziria.

Bere attona, Juan Manuel Eskudero Barrenetxea, izan zen argiziria egiteko makina martxan jarri zuena bere familian. Romanan oroitzen, Don Fernando medikuak eman zion bere attonari. Ondoren, bere semeak (Santiago Eskudero) eta honen emazteak (Petra Ezkurra) lagundu zioten zeregin horretan; Romanaren gurasoek, alegia. Eta Romana izan zen makina hori martxan ikusi zuen azkena, 18 urte inguru zituen arte aritu baitziren lanean. Makina orain ez da martxan eta gordea dute. Hala ere, denboraren makina gabe ere, iraganera bidaiatu dugu, Romanak garai haietan egiten zutena kontatzen zidan bitartean.

• Zer da argiziria?

Argiziria da elizarako egiten zen material bat. Barrenean haria izaten zuen eta mehea izaten zen. Argirizi mehe hori erroskila moduko baten biltzen zen. Batzutan holaxe paratzen zuten elizan ta beste batzutan ola baten gainen biltzen zen argiziria.





Tupikia, suaren gainean jarri eta argiziria urtzeko erabiltzen zuten.

• Argiziria egiteko materiala zeinek ekartzen zuten?

Aranotik ekartzen zuten asko. Erleen argiziria izaten zen dena. Goizutako baserritatik ere ekartzen zuten: Otxolo bordatik, Tobeneko bordatik... Gero berriz ere bueltan berak eramaten zuten, sariko gordetzen zen puska ezik.

• Nola egiten zenuten?

Makina batekin egiten ginun. Aurrena, argiziria urtu egin behar zen. Gero, argiziri hortan algodoizko haria sartzen ginun ta zulo batzutatik atetzen ginun haria, forma borobildukin gelditzeko. Ta rodillu baten biltzen ginun. Prozesu hau behin ta berriz egiten ginun, aldiro zulo haundixiotikan pasatuz, nahi ginun lodiora lortu arte.

• Zein ziren makinaren piezak?

Braseroa, tupikia, pazia, ohola zulo-kin, bi rodillu ta manibela. Braseroa, sua egiteko; tupikia, sun gainen jarri eta argiziria bertan urtutzeko; pazia zen argiziri urtua botzen ginun lekua; ohola, haria argizirikin pasatzeko ta argiziriri forma emateko; ta rodilluk ta manibela haria ta itten ginozen argiziria bueltan bueltan hartzeko ta loditzeko.

Pieza hauetaz aparte, beharrezkok zian beste hauek: argiziria pisatzeko pisua, puntzoia (argiziria pasatzeko ohola garbitzeko) eta argodoizko haria.

• Argiziriaz aparte, besterik egiten zenuten?

Bela. Bela zen lodioa, elizan erabiltzen den bela haundi hori. Hau egiteko kanpotik ekartzen zuten materiala.

Attona zahartu zenean, argiziria egi-teari utzi zioten. Orain, makina gordea dute eta Udalari edo beste erakunderen bati eman nahi diote, jendeak ezagutu dezan. Ia noizbait martxan ikusteko aukera dugun!

ARGIZIRI-OLA

Euskal kulturaren, etxeko suak garrantzia handia izan du. Sukaldean egiten zen biziaren zati handiena eta baserrietako gunerik garrantzitsuena zen. Sua bizitzaren sinbolo dela esaten da.

Kristatutasunak hildakoak hilotzara eramateko ohitura ekarri zuen. Badirudi argiziri-olak (argizaiolak) etxeetako sua hildakoei eramateko helburua zuela. Beraz, argiziri-ola baserri edo etxeetako suaren eramaile bihurtu zen.

Bidaiatzea bezalakorik?

Dakizutenak badikiztere, eztikiztenak jakin zazu-ten, aurreko urtea nere bidai urtea izandu da. 2007ko irailetik azarora Kanadan egon nintzan ingeleseko dirulaguntza bat zela medio. Eta orain urtebete, 2008ko otsailen, Argentinara joan nintzen Topografiako karrera amaierako proiektua egiteko aitzakin.

Niri bidaiatzeak sekula ez zidan deus ere esan izandu, ez nun enteintzen nere arrea, lehengusu ta gurasok ere nola baloratzen zuten bidaia-tzea.

Kontua da egintako bidaitxo horietan bizittutakoa ikusita, leku, jende, kultura... desberdinak ezagutzea oso aberasgarria iruditu zaidala. Eta mundua beste neurri edo eskala batzutan ulertzen lagundu dit, baita ahalik eta gehiena ezagutzeko gogoa pixtu ere.

Buenos Airesko Unibertsitaten nengolikan, egin behartako lanak egin ahala, aukera izandu nun eskapatatxon bat o beste itteko, haitakon batzuk nere kide zen "Lezoko Ttikiya"kin. Astesantuk aietu ta gurason bixita aproxtuz, atta ta amakin junta-tu ta han jon ginan Patagonia guru-tzatuz, Argentinako hegoaldeko mendi eta glaziarek gozatu ta sentitzera.

PERITO MORENO (1) glaziareta. Bertan erortza mordoxkaren soinu ta bibrazioak sentitzeko aukera ere izandu ginun.

FITZ ROY (2), 3441 metrotako tontorra. Gutxitan ikusi balitte ere,

ikusteko aukera izandu ginun. Dena alde!

Argentina hegotik iparrera zeharkatuz! Munduko leku miragarritako bat ikustera!! IGUAZUKO URJAUZIK (3).

Aipatu nahi nuke, kontuk kontu, ikusgarrik diren "Niagara"ko urjauzik ikusteko aukera ere izandu nula aurreko urrin, Canadako bidaien.

Ondotik, gurasori beran aldetik bidaia segitzen utzi ta berriz ere nere lanari ekin nin burubelarri! Lehenbailehen eginbeharrak eginez, proiektua bukatutako arratsalden bertan, lagun argentinar batek utzitako 65 litroko motxila hartu ta betetzeri ekin nin! Lau trapu zar, txixtu ta armonika hartu ta han abitu nintzan Argentina iparraldera lehenbiziko autobusen (1600 km Saltara)!





4



2

Biden Boliviako mugako bi erreserba naturaletako guardak lagun egin nittun, segidan Argentinako ohitura den “matea” eskeini ziaten (bertako infusio berexia), lagunarteko giron bidaia asko moztuaz. “Mate” saiotako baten, Goizuta, gure herri kuttuna deskribitu niten. Segidan gure euskal sentimentun inguruan hitzegin, eta bertako indigenan kultura zapalketakin identifikatuz, hain erreserbatarako gonbitea jaso nun. Goizutan antzeko klima umel, berde eta dotorea omen zela ta gustatuko ziala. Goizutako humedadea ezik ere, hango klima tropikalen gure txokon miño animali ta landare gehio bazian, bai hoixe! Lau hankako pilaka animali bezelaxe, tximu ta hegazti ugari!

Tarten, gure sentimentu beretsuko Indigenak bertan. “Guarani”k hain zuzen! Guk indio ta bakerotako pelikulan ikusten ginittun indio haiek, beran lurratik bialik! Gaur egun oraindik, beran lurra edukitze alde borrokan dabiltzanak.

Guarani Amalurraren (“Pachamanca”) parte sentitzen dira; lurra beren bizitzaren parte da eta, hain beharrezko ikusten dutenez, errespetatu egiten dute. Hori dela ta “Pachamanca”eskeintza ta “ritual/ohitura” guzin oinarritzat daukete.

Guarani artisau tarten egun batzuk pasa, baso tropikal ikiarri bat gurutzatu (tximu ta oiha tropikaleko sentsazio tarten), eta herrixka galdu baten, ur beroko jaiotza batez hitzegin zidaten, ta gutxi gorabehera nola joan esan zidaten. Hain gutxi gorabehera, egun hartan bertan lagun Guarani batekin bilatzen saiatu ta ez ginula aurkitu.

Gauen atton-amon batzukin hitzegin ta lasai esplikatuz zidaten, mino oso modu berexin, erreferentziatuko mendin kolorek eta zuhaitz berexik hartuta. *“Enbor haundi etzan batzuk ikusten hiru adarreko bidegurutzen, herraduran forma egitten dun bideri segittu”... “Mendi gorritza bat xendan paren ikusten, errekan soinua eskuinen sumatzen bazo ere, xendan ezkerreko bideik gabeko malkarretik jetsi, erreka lehor bat topatu arte. Ondoren erreka lehorra jetsi ta hortxe eongo da zai...”*

Biharamonen goizen goizetik abitu nitzan, ttiriki-ttarraka, nere motxila koxkorra, bezperako esplikaziok burun, “xendatik paren mendi gorri bat ikusten, erreka eskuinen sumatzen bazo...”, arrastan hondar ta landare pintxoduna besteik ez zen malkarren barna jetsi ta... hantxe azaldu zen paradisu putzua. Ez deusetik erreka bero bat sortzen etzen ba! (4)

Hurrena Boliviara aiegatu, inongo informaziorik gabe, bertakoei gomen diok eskatuz, ttarraka-ttarraka, Boliviako herririk altunera aiegatu nitzan, Potosi (4000 m pasek). Espai-



5

Uyuniko gatzarea, 10.000 km²-ko gatzeko itsaso lehorra, Andetako mendikatea sortutakoa goian geldituta ur gazi izugarriko pillan ondorio!

Liman, Oartzungo Aritz Urdepiletakin ("Xerpa") elkartu, ta Peru iparraldeko "Cordillera Blanca"ra zuzenen!

Alturara aklimatatzeko (ohitzeko) mendira jon ginan, motxilan kanpinak, lo zakua, gasa... eta jatekoa hartuta. Egunero altura haundiagon lo eginez, 3.000tik 5.000raino. Hortako, ingurutako mapa bat hartu, ta gen eguneroko ibilaldia pentsatuz, "Ikuusi mendizaleeeak..." paraje bikañak ikusiz joan ginen: glaziare dotorek, tontor ikiarrik, laku eleantek... (8)

Aste bete ingurun, motxila arinduzen, eta baita jateko eskasia sumatu ere, herritik nahi bino urrutiago...! Ahuleriak jota bueltatu egin behar!

Ta bueltan bueltan, herri aldera irtestar bidebaterretik hitz egin ziguten: "Arratsaldeon!", (xo? Azpeitiar ta Hernaniko bat! Erra pare!)

Haiekin topatu ordu, hurrengo egunatako mendiko plana egin ginun ixtantean. Hoiek gailurrak egittekotan zian, mino nik alpinismoko materialik ez! Han Perun bizi eta alpinismoko agentzia bat zuen lagun Gasteiztar batek (Pablo

Lopez...), gure asmoak sumatu, eta behar nuen material guzia eskeini zidan. Behin horrela, aitzakiarik ez!

Aste beteko jatekoak merkatuan erosi, traste guziak prestatu (arnes, soka, galtza egokik, pioletak, granpoiak, mendiko botak, tornilluak, estakak...) eta hiru gailur igotzeko plana egina!

niarrak hustutako zilarrezko 4.600 m-tako menditxoak. Han bertatik espainiainoko zilarrezko zubia egitteko adina zilar "ohostu" omen zuten mendetan zehar!

Bolivia gurutzatuz, 3.660 metrotan dagon Uyuniko gatzare ikiarritatik pasatuz... (5)

La Paz-etik pasanitzan, bailara osoa bere malkar eta guzi hartzen dun hiri berexitik. Bertatik, Titi-kaka lakura! Gaur egun oraindik "Aimara" (Inkan aurreko hizkuntza) hitzegin eta ia-ia orduko erara bizi dian natibo batzuen irlatik bixita eginez, Perura!! (6)

Perun, munduko beste "leku miressgarri" bat ikusteko aukera! MACCHU PICHU. (7)

6

TITIKAKA lakuan, Eguzkin irlatik ateratako argazkia, atzean ikusten dena Iargin irla, ta atzen 6000tik gottiko mendi elurtuk.





7



8

URUS (5498 m), ISHINKA (5530 m) eta TOKLARAJU (6032 m) (9)

Menditik itzuli eta lagun gasteiztarrak agentzian lagunduko ote nin, talde batzuk heldu zitzaizkiola eta harren itxen luzatu nun Peruko egonaldia, hari lagunduz etortzen ziren taldeekin, eskalatu, barranko jeitxierak eta puenting eginez tarteko (bai gustora!)

Egun horietan, mundua zein tiki den ikusiz, Goizutan bizi den Hernaniar bat esnatu zen gabetik goizera nire ondoko logelan, Zuhaitz. Eta errematatzeke, haiek hasitako barranko berri bat irekitzez bukatu ginun, tarten 80 metroko urjauzi eta guzi.

Tarten beste hamaika xelebrekeri bizittu izanak, eta esperientzi guziak batuta, argi daukit bidaiatzea oso aberasgarria izan dela neretzat.

Euskal Herria ta berexio, GOIZUETAK xarma haundia do neretzat,



9

9



gure giro berexi hau ikiarria baita. Eta munduko leku eta bizimodu desberdinak ezagutzek, daukagun guzia (ezeren eskasia hain zuzen) baloratzen lagundu dit, eguneroko gertakari guzitan, daukiun alde ona bilatzen adibidez.

Genealen, herritarrari pranko kostatzen zaigu bidai mundu honetan

lehenengo pausoa ematen. Baina denak gonbidatzen zaituztet, gure bizitik merezi dun denbora hartu eta gustatuko zitzaizkizuen lekuetara joateko, BIDAIATZEA BELDURRIKAN GABE, Goizuetan bueltan bertan aurkitzeko esperantzarekin, bere xarma guzikin. Esperantza nago orain Valentzin, 2 urtetako Kartografia ikastera etorria.



MEGALITISMOA



Kultura megalitikoaren ezaugarri nagusiena, zalantzarik gabe, harrizko ehortze-monumentu erraldoien eraikuntza da. Fenomeno megalitiko geografikoki eta kronologikoki biziki zabala da eta adituak ez dira ados jartzen haren hastapena kokatzerakoan. Batzuentzat Mediterraneo aldetik hedatu zen eta besteen-

tzat Portugal edo Atlantiko aldetik. Egia dena zera da, megalito erraldoiak Kristo aurreko IV. Milurteko erdian (3.500 urte K.a.) eraikitzen hasten direla. Hirugarren milurtekoan Europa osoan zehar zabaldu ondoren, bere iraupena bigarren milurtekoan barna Burdin Aroraino iritsiko da. Ez da inolaz ere ahaztu behar

megalitismoaren aniztasun geografikoa eta kronologikoa. Ondorioz, arkitektura moten aldetik, erritoen aldetik eta beste ezaugarrien aldetik ezberdintasun handiak gerta daitezke. Sus-traian zibilizazio eta erlijio baten hedapenez hitz egin behar da, tokian tokiko ñabardurak kontuan harturik. Zabaldutako erlijioa, hildakoen gur-



dehilobia. Harri handiz (ortostatoak) osatutako hilobi-ganbarak dira. Orokorrean bakunak, korridoredunak edo galeria estalikoak izan daitezke. Hala ere trikuharrien arteko bariantek anitzak dira, garaien edota zonalde ezberdinen arabera.

Tumuluak: lurtean eraikitako harrizko eta lurrezko meta. Tumuluak ganbara megalitiko motaren bat barnean har dezake. Batzuetan, ganbararik ez dagoenean, ehorzketaren orde errausketa egiten da. Estructura hauen artean ere ezberdintasun handiak daude garaien eta zonaldeen arabera. Esaterako, Britainiako Carnac aldeko tumulu erraldoiak askoz ere zaharragoak eta handiagoak dira Euskal Herriko tumulu sinpleak baino.

Harrespila: harriz eraikitako zirkulua, diametro zehatzik gabea eta banaka zein multzoka ager daitekeena. Euskal Herrian, errauste hil-erri-toei lotuta daude. Mendialdean kokatzen dira eta kronologikoki Kristo aurreko lehen milurtean zabaltzen dira. Dena den, Ipar eta Mendebaldeko Europako harrespilek (Cromlech, Neolitiko garaikoak) ez dute zerikusirik gure Burdin Aroko harrespilekin (Baratz). Hemen hitz egin behar gure gure lurraldeetako berezko manifestazioaz, Pirinioetako Harrespila gisa ezagutzera eman denaz.

Zutarria: lurtean zutik ezarritako harritzarra. Zaila da noizkoak eta zertarako ziren zehaztea, baina ziurta daiteke trikuharriaren garaikideak direla, harri luzea (zutarria edo menhirra) lurtean landatzeko ohitura Burdin Aroraino hel daitekeelarik.

tza, hil ondorengo bizitzako sinestea eta Eguzki eta Ernalmen jainkosaren gurtzan oinarritzen zen. Horretaz gain, megalitismoak lurraldetasuna, paisaiaren dominioarena eta monumentalismoaren ideiak ekarri zituen, besteak beste.

Euskal Herrian fenomeno megalitikoaren sorrera Neolito garaikoa da

eta Burdin Aroraino heltzen da, zenbait aldakuntza nabarmenekin. Eraikuntzen egitura eta formak arras desberdinak izanik ere, Euskal Herrian aurki daitezkeenak lau taldetakoak dira:

Trikuharria: Neolitotik Brontze Garairaino zabaltzen den ehorte tal-

IÑIGO TXINTXURBETA

"Ez dira harri puskak"
Argiako artikuluetatik hartutako testua
<http://www.argia.com/argia-astekaria/1817/ez-dira-harri-puskak/osoa>



Zapo kantariak

(ikerketaren segida)

Aurreko urteko Xapon Goizuetako “Zapo kantariei” buruz hitz egin genuen. Ordukoan, doinuak gure hizkerari izaera berexia ematen diola esan genuen, nongoak garen nabaritzeko modukoa. Eta hainbat hitz pare zerrendatu ere bai, azentu hutsez berexen direnak: *arrántza* (astoarena) eta *arràntza* (arrantzalearena); *basó* (oihan) eta *bàsó* (edalontzi); *zàpok* (singularra) eta *zàpok* (plurala)...


Artikulu hura idaztean, intuizioan oinarritu ginen. Eta ondoren, intuizio hura herriko jendeak erabiltzen duen doinuarekin bat egiten duen frogatu nahi izan genuen. Izan ere, azentua oso erraz alda daitekeen ezaugarria da. Oiartzunen, adibidez, doinu azentua galdu dela esaten dute adituek. Zein da, beraz, egoera Goizuetan? Galdera honi erantzuna emateko oharren proba bat egin genuen 40 goizuetarrekin. Kontuan hartzen badugu Goizuetak 800 biztanle dituela, Goizuetako bizilagunen %5ak parte hartu zuen. Artikulu honen bidez, parte-hartzaile guziei eskerrak eman eta froga haren nondik norakoak azaldu nahi ditugu.

IKERKETA

Oraingoan, beraz, Goizuetako doinu azentuak bizirik segitzen duen ikusteko egindako probaren berri emango dugu. Proba hau Jose Ignacio Hualdek, euskal azentuari buruzko adituak diseinatua eta proposatua da. Hori egiteko arrazoiaren artean hau dugu:

Gai honen inguruan argitaratu ditugun beste lanetan, saiatu gara erakusten Goizuetako azentuaren ikerketak daukan garrantzia, euskalaritzarako zein sistema prosodiaren tipologiarako. Doinu azentua euskarak daukan gauzarik berezietarikoa da eta, dudarik gabe, oso ezaugarri zaharra da. Honi gaineratzen badiogu orain arte kontserbatu den leku gehienetan doinu azentua galtzen ari dela, argi dago euskalaritzaren lehentasunen artean ipini behar dugula bere ikerketa (J.I. Hualde eta O. Lujanbio, “*Goizuetako azentuaz zerbait gehiago: oharmena*”, argitaratzeke).

Oharmen proba honetarako soinuak estimuluak eta irudiak erabili genituen. Soinuzko estimuluak grabatutako hitzak ziren, marrazkien bitartez irudikatu genituenak. Parte-hartzaileen lana entzundako hitzak identifikatzea zen, emandako irudiak aukeratuz.



1. Irudia: *mònori* ‘monoari’ eta ‘monoei’ estimuluaren irudiak

Soinuzko estimuluak eta irudiak azentuaren bidez ezberdintzen ziren 8 bikote adierazten zituzten:


1. *arrántza* (astoarena) vs. *arràntza* (arrantzaleena)
2. *frutéroa* ‘fruta saltzailea’ vs. *frutèroa* ‘fruta ontzia’
3. *ardíkin* ‘ardiarekin’ vs. *ardíkin* ‘ardiekin’
4. *basóan* ‘oihanean’ vs. *bàsóan* ‘edalontzia’
5. *úmeri* ‘umeari’ vs. *ùmeri* ‘umeei’
6. *katúk* ‘katuak, ERG’ vs. *katùk* ‘katuek’
7. *zakúrran itxéa* ‘zakurraren etxea’ vs. *zakùrran itxéa* ‘zakurren etxea’
8. *láunana* ‘lagunarena’ vs. *làunana* ‘lagunena’

Zerrenda honi gure ustez desberdintzen ez diren beste bi bikote gehitu genizkion:


9. *fòkari* 'fokari' eta 'fokei' (?)

10. *mònori* 'monoari' eta 'monoei'


Irudietan, grabatutako estimulu batzuen intonazioa (oinarizko maiztasuna) ikus daiteke.




2. Irudia: *frutéroa* "fruta-saltzailea"



3. Irudia: *frutèroa* "fruta-ontzia"



4. Irudia: *làunana* "lagunarena"



5. Irudia: *làunana* "lagunena"

Hitz hauekin "mini-elkarrizketa" batzuk grabatu genituen, galdera baten testuinguruan: hiztun batek egiten zuen galdera eta beste hiztunak erantzuna ematen zuen. Grabatutako galderak eta erantzunak hauek dira:

- | | |
|-----------------------|-----------------------------|
| 1A. Zer da hori? | arrántza (arrainena) |
| 1B. Zer da hori? | arrántza (astoarena) |
| 2A. Zer da hori? | frutéroa (fruta ontzia) |
| 2B. Zer da hori? | frutéroa (fruta saltzailea) |
| 3A. Non do? | ardíkin (sg) |
| 3B. Non do? | ardíkin (pl) |
| 4A. Non do? | bàson (edalontzian) |
| 4B. Non do? | basón (oihanean) |
| 5A. Zeñeri man dio? | úmeri (sg) |
| 5B. Zeñeri man dio? | úmeri (pl) |
| 6A. Zeñek jan do? | katúk (sg) |
| 6B. Zeñek jan do? | katùk (pl) |
| 7A. Zeñen itxea da? | zakúrrian itxéa (sg) |
| 7B. Zeñen itxea da? | zakúrrian itxéa (pl) |
| 8A. Zeñena da kotxea? | láuana (sg) |
| 8B. Zeñena da kotxea? | láuana (pl) |
| 9A. Zeñeri man dio? | fòkari (sg) |
| 9B. Zeñeri man dio? | fòkari (pl) |
| 10A. Zeñeri man dio? | mònori (sg) |
| 10B. Zeñeri man dio? | mònori (pl) |

Hogei "mini-elkarrizketa" hauekin bi entzutezko estimulu-zerrenda (bi bertsio) prestatu genituen A eta B taldeko galdera-erantzunak nahasiz era arbitrarioan:

Lehen bertsioa

- 1A
- 2B
- 3B
- 4A
- 5A
- 6B
- 7B
- 8B
- 9A
- 10A

Bigarren bertsioa

- 1B
- 2A
- 3A
- 4B
- 5B
- 6A
- 7A
- 8A
- 9B
- 10B

Honela, bertsio batean "Zer da hori?" galderak "arrántza" (arrainena) erantzuna zuen segidan eta beste bertsioan "arrántza" (astoarena).

Esan bezala, ikerketa honetako partehartzaileak goizuetarrak ziren eta Goizuetan bertan egin zen oharren proba. Gure helburua 40 lagun lortzea zen, 20 probaren bertsio bakoitzerako. Arrazoi praktikoengatik, 18-65 adin tartea aukeratu genuen, parte-hartzaileak bi taldetan banatuz: "gazteak" (18-40) eta "helduak" (41-65). Adinen eta sexuen arteko oreka zaindu dugu. Parte hartu zuten hiztunak, datu demografikoen aldetik, hurrengo taulan erakusten den moduan banaturik daude:

	1. Bertsioa	2. Bertsioa
gizonezko gazteak	5	5
emakumezko gazteak	5	5
gizonezko helduak	5	5
emakumezko helduak	5	5
DENAK	20	20

Taula 1. Parte-hartzaileen banaketa demografikoa

Ikerketan hauxe egin genuen: 40 parte-hartzaileetako bakoitzak grabatutako bertsio bat entzun zuen. Grabazioan, galdera eta erantzun bat entzuten zuenean, entzun zuen erantzuna aukeratzeko, marrazkietako bat markatu zuen.

Eta horrela aukeratu zituen parte-hartzaile bakoitzak bere ustez entzun zituen 10 erantzunak.

HIPOTESIA

Gure hipotesia zen parte-hartzaileek, beti edo gehienetan behintzat, marrazki zuzena aukeratu zutela lehen 8 estimuluetarako¹.


EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Lehen Bertsioa	Erantzun zuzenak	Bigarren bertsioa	Erantzun zuzenak
arràntza (arrain)	20/20 (%100)	arrántza (asto)	18/20 (%90)
frutéroa (saltzaile)	14/20 (%70)	frutèroa (ontzia)	19/20 (%95)
ardikin (pl)	18/20 (%90)	ardíkin (sg)	15/20 (%75)
bàson (edaldontzi)	20/20 (%100)	basón (oihan)	20/20 (%100)
úmeri (sg)	19/20 (%95)	ùmeri (pl)	19/20 (%95)
katùk (pl)	18/20 (%90)	katúk (sg)	20/20 (%100)
zakùrran itxea (pl)	19/20 (%95)	zakúrran itxea (sg)	20/20 (%100)
làunana (pl)	18/20 (%90)	láunana (sg)	20/20 (%100)

2. Taula: emaitza orokorrak

Gure esperimentuaren emaitzek erakutsi digute doinu-azentuzko bereizkuntzak, bai singularraren eta pluralaren artekoa eta baita hitz desberdinen artekoak ere, orokorrak direla Goizuetako euskaran. Behintzat oharren mailan, hiztun guztiek, edo gehien-gehienek, tonu aldaketak nabaritzen dituzte eta hitzak desberdintzeko balio die. Gure oharren proban gazteek oso errore gutxi egin zituzten azentu bereizkuntzekin. Ondorioz, doinu-azentuzko bereizkuntzak oraindik ere osasuntsu segitzen du Goizuetan.

Berriz ere, eskerrak eman nahi dizkizuegu muxutruk parte hartu duzuten guzieri. Zuek gabe ezin izango genuen ondorio honetara ailegatu!! Informazio gehiago edo zerbait komentatu nahi izanez gero, badakizute non gauden. Gaia-ri buruzko xehetasun gehiago “Goizuetako azentuaz zerbait gehiago: oharmena” (J.I. Hualde eta O. Lujanbio) artikuluan emango dira. Artikulu hori EHUK argitaratutako liburu batean agertuko da.



¹ 9. eta 10. estimuluen emaitza eta ondorioak ez ditugu azaltzen, hauek zerrendan jartzeko arazoak eta emandako emaitzak azaltzeko artikulua gehiegi luzatuko genukeelako.



Azaro kulturala

2008

Joan den urtean ere herriko kultur taldeak, udaletxearen laguntza ekonomikoarekin, urteroko "azaro kulturala" antolatu zuten.

Hainbat ekitaldi izan genituen ikusteko eta oso arrakastatsuak suertatu ziren.

Hasiera emateko, urriaren 25ean, "Udazkeneko biran",

"Salam" antzerkia ikusteko aukera izan zen udaletxeko ganbaran.

Ganbaran, frontoien... antolatutako ekitaldien azalpenak ematea baino ederragoa dela iruditzen zaigu argazki bidez erakustea, eta hementxe doakizue denen artean lortutako emaitza.



Azaroak 8

Sabel dantza - Ganbaran

Azaroak 15

**Harribil dantza taldea
Urratsen Oihartzuna
ekitaldiarekin
- Frontoian**

Orioko Harribil dantza taldeak, ekitaldi ikusgarria eskaini zuen Goizuetar eta kanpotarren gozamenarako. Frontoia ttikia gelditu zela esan beharra dago, izugarrizko jende pila hurbildu baitzen dantzarien emanaldia ikustera.

Orri hauek aprobetxatzen ditu "Kultur taldeak" bertara hurbildu ziren guztiei **eskerrak emateko**, izandako borondate ona eta laguntzagatik.





Azaroak 22

Ibilbide megalitikoaren erakusketa - mendi buelta
Bideo emanaldia haurrentzat - Ganbaran

Azken hilabeteotan herri guztiaren ahotan dabil Goizuetako mendietan dauden hilarriei buruz egindako lana. Lehendabizi, urrian, mendi buelta izan zen, eta lan hau egiten aritu direnak "hilarri" ezberdinak non zeuden erakutsi eta azalpenak eman zizkieten parte-hartzaile guztiei. Azaroaren 22an, udaletxe-ko ganbaran egin zen "Ibilbide megalitikoaren" aurkezpena eta bertan honi buruzko "triptikoak" banatu ziren.

Azaroak 27

"Xalto eguna" - Eskolan

Urtero bezala, San Andres egun inguruan, Andres Narbarte "Xalto" ikastetxeak bere eguna ospatzen du. Aurtengoan 27an egitera erabaki zen. Eskolako ikasleek "Xalto" bertso paper lehiaketan parte hartzen dutenez, egun horretan sariak eman ziren. Horretaz gain Goizuetako "bertso eskolako" ikasleek, Estitxu Arozena irakaslearekin batera, bertso emanaldia eskaini zuten, kanpoko beste bi bertsolarirekin batera. Eskolako jangelan egin zen jaialdia eta bertara guraso, ikasle ohiak... hurbildu ziren.

Ttikienek, "Lur Korta" ipuin kontalariarekin egoteko aukera izan zuten, eta ederki pasa ere bai.



Azaroak 28

Amona Lurdesen unguenduak - Umore Ona elkartean

Umore Ona elkarteko sukaldean, Lurdes Eskudero, bere ahizpa Kontxi-ren laguntzarekin, belar ezberdinak erabiliz egin daitezkeen, eta berak egin ohi dituen, unguenduen “sekretuak” eman zituen. Ekitaldi interesgarria eta kurio-soa izan zen.



Azaroak 29

Goizuetako V. Artisau etaazienda FERIA

Zerri-hiltzea, trikitilarien kalejira, barazki eta artisau postuak, herritarrenak eta kanpokoan, aziendak (behorrak, zaldiak, pottokak, behiak, ardiak, ahariak, zerria...), sagardo prestaketa... ikusteko eta gozatzeko aukera izan genuen, hilabete kultural honen izartako daukagun egunean. Kultur taldea, herriko erakunde (Udala, Gazte asanblada, Ezker abertzalearen taldea, Umore Ona elkarte, guraso elkarte, jubilatuen elkarte) eta jendearen laguntzarekin, feri eguna antolatzerakoan ekitaldi berriak sartzen saiatzen da. Aurtengoan honako hauek izan dira: Gazta egitea, gorotza zabaltzea, harri-zulataileak, aizkora desafioa eta gaueko malabare eta perkusio kalejira.



ESKERRIK ASKO feri egun hau aurrera eramaten laguntzen diguzuen herritar guztiei: aurretik antolakuntza lanetan aritu zaretenei eta baita egun berean ekitaldietan parte hartzen duzuen guztiei ere.



Eskola eta herria, elkarrekin bizia

Matematikako liburu potzolak, azterketak, irakasle plastak, kastiguak... horrelako kontzeptuak etortzen zaizkigu burura askori "eskola" hitza entzuten dugunean, baina oroitzen on askiak ere etortzen zaizkigu bertako lagunez oroitzen garenean. Edo ez?

Goizuetako eskolan ikasgaiez aparte beste hainbat ekintza burutzen dira ikasturtean zehar eta nahi edo ez eskurtsio, zuhaitzaren egun, antzerki

eta abarrek arrastoa uzten dute eskolako partaide guztien artean. Horiek antolatze komisi bat baino gehiago daude eskolan; kultura, jaiak eta kirolak edo liburutegikoa esaterako. Orain 3 urte, bestalde, 2006/2007 ikasturtean hain zuzen, "Elkarbizikidetz" komisiua sortu zen eskolan parte hartzen duten kide guztien arteko harremana sendotzeko. Izan ere, ikasgaiak behar bezala barnatzea bezain garrantzitsua da gure ingurukoekin

harreman onak izatea eta elkar errespetatzen jakitea, eta hori askotan matematikako problemak ebaztea baino zailagoa izaten da bat baino gehiagorentzat.

Inguruko kulturetatik herriko historiara

Elkarbizikidetz komisiua 3 irakasle eta guraso batez osatua egon da ikasturte honetara arte, nahiz eta gaur



Eskolako ikasleek historiaren trenoa osatu zuten beraien lanekin.

egun irakasleek soilik osatzen duten. Sortu zenetik ekintza ugari egin dira Goizuetako eskolan; esate baterako, kulturantzatasuna eta merkataritza justua bezalako gaiak landu genituen aurreko ikasturtean, arrakasta handia lortuz. Hala ere, gurasoen parte hartzea eskasa zela nabaria zen. Hori dela eta, iaz gurasoei irakasle papera hartzea proposatu genien eta baita emaitza ederra lortu ere!

Joxe Jabier Etxeberriak Goizuetako historiari buruzko jakingarriak eskaini zizkien eskolako zaharrenei, eta Rosa Mari, Izaskun, Lurdes, Pili eta Arratek, bitartean, herrian garai batean zeuden lanbide ezberdinen inguruko aurkezpen interesgarria eskaini zieten txikienei. Ondoren, gurasoengandik ikasitakoa aurkezpen batean bateratu zuten ikasleek, Goizuetako historiaren trenoa osatuz.

Ingurumenarekin harremana

Behin kultura ezberdinak, komertzio justua eta Goizuetako historia ezagutu ondoren, ingurugiroaren zainketa gaitzat hartuz konpost-gai-



Konpostontzia jarri genuen eskolako patioan hondakin organikoetatik lurrarentzat ongarria lortzeko.





Urtero udaberriko egun batean irteera egiten da zuhaitzak aldatzera.

lu bat ezarri genuen eskolan haurrek etxeko zaborra gutxitzeko kontzientzia har zezaten. Horrela, hondakin organikoak konpost-gailura bota ondoren, lurrari botatzeko ongarria lortuko dugu prozesua amaitutakoan.

Ikasturte honen hasieran gela bakoitzak, konpostaren gaiarekin jarraituz, birziklapena eta konpostaren inguruko lanketa eraman zuen aurrera otsailaren 20an jendaurrean aurkezteko antzerki, bertso eta eskulan formatuan. Eta ingurunearekiko errespetuaren gaiari bukaera eman eta inauteriei hasiera emateko herria kolorez jantzi genuen urteroko desfilean, herriko kontenedoreez mozorrotu ginelarik eskolako haur eta irakasle guztiak.

Ikasle, irakasle eta gurasoak elkarrekin jolasean

Harremanetan hurbilduz, bigarren hiruhilabetekoan eskolako ikasleekin hainbat jolas ikasiko ditugu, jakina baita jolasak harremanak hobetzeko baliabide ezin hobeak direla! Horrela, irakasleek jolas-garaietan erakutsitako jolasez gain, gurasoei ere beraien gazte garaiko jokoak erakusteko gonbita bidali zaie.

Gainontzeko urteroko ekintzak

Elkarbizikidetzaren proiektuaren barnean ekintza asko burutu badira ere ikasturte hauetan zehar, ezin ahaztu-

ko ditugu urtea joan urtea etorri errepikatzen diren, eta hala ere arrakasta izaten jarraitzen duten ekintzak. Hauetako batzuk dira Xaltoa eguna, Gabonetako kantuen festa, Aste Txurria, Inauterietako kalejira, irratia, antzerkiak, Zuhaitzaren Eguna, egun bakarreko irteerak, ikasketa bidaiak...e.a. eskolako plangintzara ongi errotuak.

Ikus daitekeen bezala, gure eskolan izugarritzko garrantzia ematen zaio bertako kideen arteko eta ingurukoekiko harremanei. Giro on batekin ikasgairik gogorrenak ere atseginago bihurtzen baitira eta eskola eta herriaren arteko elkarbizitza ongi zaindu beharreko altxorra baita.

Beraz, ez ahaztu: Eskola eta herria, elkarrekin bizia!

AUTOEROTISMOA

Gaur eun ya masturbaziok inñolako gaitz fisiko edo mentalik eraitten ez dula nahiko zabaldua do. Inñork ez do zalantzan patzen gaixotasunik sortzen ez dula (irakaslek, atta edo ama kontserbadorek, ez dizkiute holoko gauzak saten: “itsu geldittuko za”, “bizkarrezur-muiña lehortuko zizo” edo “erotu ingo za”). Gure gorputza ezautzeko ona izan littekela saten diute oain, ze atsein dun yakittek, urdurì gaudenen lasaitzeko edo gure bikotekin dun harremana hobetzeko, ze atsein dun ta ze ez okio azaltzeko. Azken baten, gauza askotako balio dula ta praktikatzeko nahiko arrazoi badula.

Hala re, maten do adin yakin bat izan arte eokia izatez gain, masturbatzea derrigorrezkoa re badela, plazerra sentitzeko ta gure gorputza ezautzeko bakarkako moduk bilatzeko. Maten do zenbat ta gehio in (edo zenbat ta gehio san), ordun ta hobe dela.

Hala re, gai honek oaindik kezkatu itten gitto. Zertik? Batzutan gaizki yokatzen dula pentsatzen dulako. Bikotea dunen, ya helduk ganen, askotan itten dunen... Bikotea dunen masturbatzea beharrezkoa izan barko ez litzakela pentsatzen du ta adinen aurrera gozenen ta gure hormonak horren nastuta ez daudenen, gure eszitazioa kontrolatu in barko giñukela ta beste pertsona batzuekin ttun harremanatara zuzendu barko giñukela pentsa dezakeu. Edo gehigitan masturbatzen gala pentsa dezakeu, horren neska laun edo mutil laun jatorra izanta ta berakin ohen horren ongi pasatuta normala ez dela pentsa dezakeu, sexu-adikzioa izan dezakeula.

Arazoa hauxe da: masturbaziori buruzko garai bateko aurreiritzik gairiditu nahian, helburuk patu dizkiogu. Ta horiek betetzen ez dianen kezkatu itten ga. Gure gorputzak kitzikapen ugari sentitzeko gaitasuna dula san barko giñuke, kitzikapen atsegiñak ta desatsegiñak, ta horietatik atsein ttunak bilatzen saiatzen gala.

Pertsona guziri ezin zaizkie gauza berak gustatu, ta horretik, ezin diu inñorreri san nola, noiz edo zertik ukittu bar dun bere gorputza.

Emakume askok ta askok, edozein adintakok izanta re, ez ttuzte beran sexuorganok ezautzen. Nola ezautuko ttuzte, ba, mutillak, edo beste neskak, emakume hoiekin izaten ttuzten lenbiziko harremanatan? Ba al dakizkizo zure kanpoaldeko organo genitalan ize-nak? Ez potxin, ez ematutu ta ez... Beste edo-

zein izen patzen diu, benetakoa izan ezik: alua. Benetako izena ez ezauttez gain, ttun zatik, ezaugarrik ta funtziok e ez ttu ezautzen.

Biño, nola masturbatzen ga neskak? Emakume guzik ez ga berdiñak, ta horretik, ez ga denak berdin masturbatzen. Gañera, ez du zertan denak masturbatu. Gaur eun mutillak baginatik zerbitte sartuz masturbatzen gala imajinatzen dute, hori plazerran gunea balitz bezela. Film pornoan hori atetzen da, autoerotismoa lortzeko zakilla ordezkatzan dun zerbitte beharko bagiñu bezela.

Ba, mutillak, hori ez da hola; gure alun (baginan sarreratik urruti xamar) klitoria do: nerbio-bukaera askoz osatua do, zakillan glandea bezelaxe. Klitorin funtzio bakarra sentipen sakonak sentiaraztea da (plazerra, biño baita miña re, kitzikatzen modun arabera). Beraz, sentikortasun haundiko gunea da, seurona gorputz osoko sentikorrana, ta neska askok, masturbatzean, puntu hori ferekatzen dute.

Motiko guzik e ez dia modu berdiñen masturbatzen, biño demagun hola dela. Izan e, motiko nahiz neskan gorputzatan, genitalatan sentikortasuna haundia den arren, badia sentikorrak dian beste gune batzuk e: gorputz osok erantzun itten do ferekatzen dunen ta plazerra eskeintzen diu. Garrantzitsuna, neska edo motikoa izan, ez da zenbat aldiz masturbatzen zan, baizik ta masturbazioaren kalitatea, masturbatzeko modu desberdiñak.

Plazerra sentitzeko gure gorputza ukitzea ongi sentitzeko modu bat izan litteke, biño ez da derrigorrezkoa edo bakarra, ta ez du modu jakin baten in bar. Pertsona bakoitzari dagoki ze atsein dun ta ze ez aurkitzea, ta hori jakinta, ze in nahi dun ta ze ez erabakitzea. Kontu hoitan ez do araurik, ta beraz, zure esku do zure gorputzak transmititzen dizkiun sentipenak zein dian aurkitzea.



Facebook-ean hitz egingo dugu

Nola egiten ditugu lagunak goizuetarrok? Parrandan trago batzuk hartzea aitzakia ezin hobea denik ezin ukatu! Lehen hitzorduak jartzen ziren: “5etan plazan” Orain urte batzuk mugikor zenbakia eskatzen hasi ginen ondoren sms bat bidaltzeko. Baina orain? Zein da gaur egun lagun berriak egiteko, aspaldiko lagunekin komunikatzeko, egindako bidaiak komentatzeko edo, besterik gabe, gure lagunekin hitz egiteko tresnak?

Giza-sareen azken urteetako boomak jendea ezagutzeko eta harremanak izateko modua aldatu du, eta interneti esker gure logelatik muittu ere egin gabe munduko beste puntan dagoen pertsona batekin komunika gaitezke momentuan bertan, bi ordu lehenago atera diguten argazkia ikus dezakegu edota aspaldian eskolako kide izan genuen haren berri izan dezakegu klik soil bat eginuz!

Baina zer dira giza sareak? Dibertitzeko tresna hutsa edo arrisku bihur daitekeen komunikazio tresna? Goazen bada hauetako batzuk ezagutzera:

MESSENGERRA: guk aukeratutako kideekin momentu errealean komunikatzeko tresna bat da. Uneko mezuak bidali eta jasotzeko aukera ematen digu, gure lagunak ere bertan konektatuta badaude.

FOTOLOG: norbanako web orri mota bat da. Bertan egunero argazki bat patu dezakegu komentario batekin. Edonork ikus dezake orri hau eta fotologa edukiz gero baita komentarioaren bat idatzi ere.



MYSPACE: Gehienbat musika taldeek erabiltzen duten webgunea da beren burua promozionatzeko. Kantuak, kontzertuen datak...e.a. zintzilikatzeko aukera ematen du.

SKYPE: Internet bidez bideo-deiak egiteko tresna da. Software hau daukaten erabiltzaileek dohainik egin ditzakete dei hauek beraien artean. Beharrezko bakarra webcama, mikroa eta programa hau instalatzea da. Egunero 400.000 erabiltzaile berri ditu.

TUENTI gazteentzat zuzendutako lagun-sare bat da. Behin bertan erregistratu eta tuenti-orria lortuta, argazkiak igo ditzakezu, mugarik gabe; zure blogean testua idatzi; edo besteen tuenti-orrietan edota argazkietan komentarioak jarri...

Zure tuenti-orriaren pribazitate maila aukera dezakezu: zure lagunek bakarrik ikusi ahal izatea, zure lagunek eta haien lagunek ikusi ahal izatea, edota pertsona guztiek ikusi ahal izatea.

Han, pertsonak oso errez aurki daitezke: izen-abizenen bidez, duten lana edota doazen eskolaren izena bilatuz, bizilekua bilatuz, parrandara ateratzen diren zonaldeen bidez, lagunak lagunak bidez, e.a.

FACEBOOK: 18 urteko amerikar batek sortutako webgune sozial bat da. Tuentiren ezaugarrien antzekoak ditu, baina Tuentik Espainiako erabiltzaileak dituen bezala, honek mundu osoko erabiltzaileak biltzen ditu, bere arrakasta izugarria izanik. Jadanik 175 milioi erabiltzaile ditu eta egunero 600.000 kide berri gehitzen zaizkio. Kopuru hauek ikusita, Facebook herrialde bat izango balitz, munduko 6. estaturik populatuena izango litzateke!

Ikusten duzuen bezala, modu asko ta asko daude internet bidez jendea ezagutzeko, baina kontuan izan, halako abiaduran hazten doan mundu honek arriskuak ere berekin dakartzala. Birusak zabaltzeko arriskua eta gure datuen pribatutasuna galtzeko aukera esaterako.

Tresna hauen erabiltzailea bazara, arretaz ibili sarean jartzen duzunarekin, eta ez ahaztu internetetik aparte aukera ederrak ditugula lagunak egiteko eta beraiekin momentu polit askiak pasatzeko. Beraz, ez zaitezela sarean trabatuta geratu!

Hiru apeza juntatu omen zian elizen arteko topaketan baten, kafea hartzen eta tertulia baten ari omen zian; alegia elizako limosna nola banatzen ote zuten Jangoikoakin. Apeza inglesa hasi omen da hizketan:

- Guk Ingalaterran, lurren marra bat marrazten du eta limosna airera bota eta ezkerreko alden gelditzen dena guretzat eta eskuñekoa Jainkontzat.

Apeza frantzesaren saltatzen da ondoren:

- Ba guk Frantzin, lurren 5 cm-ko marra margotzen du, limosna airera bota eta marran barrenen gelditzen dian diruk Jangoikontzat eta gañekok guretzat.

Azkenik euskaldunak parrez beitzen dite besteri, ta saten dite:

- Guk modu errexena itten du, limosna bota gotti ta Jangoikok hartzen ttunak beretzat ta lurrera eroitzen dianak guretzat.

Eskolan maisuk galdetzen omen dio ikasle artista hoietako bateri:

- Zenbat dia $2 + 2$?

Ikasleak seittun:

- Emateko 3 eta hartzeko 5!

Gizon bat txori dendara sartu da eta loro elebiduna eskatu zuen. Dendariak hanka bakoitzean soka bana zuen bat erakutsi zion.

Ezkerreko sokatik tira eginez gero, euskaraz hitz egingo dizu –azaldu zion saltzaileak- eta eskuinekotik tira eginez gero, katalanez.

Aizu, eta bietatik batera tira egiten badiot? –galdetu zion bezeroak.

Zozo halakoa! Lurrera joango naiz mokoz aurrera!– erantzun zion loroak.

Familia batean denak biltzen omen dira Eguberrietan, eta gazteak aitonari galdetzen dio:

- Aitona, aitona! Ikusi al duzu nire tripia?

- Ez, eta zuk pasilloko elefantea?

Honako galdera hauek AEBetako epaiketetan serio egindakoak omen dira.

1. Eta beraz, mediku jauna, ez al da egia pertsona bat lotan dagoela hiltzen bada, hurrengo goiza arte ez dela horretaz jabetzen?
2. Eta zu bertan al zeunden zure argazkia hartu zutenean?
3. Nor hil zen gerran, zu edo zure anaia?
4. Berak hil zintuen zu?
5. Elkar jo zutenean, bata bestearengandik zein distantzira zeuden bi ibilgailuak? Eta
6. Zu, alde egin arte, han egon zinen, ez da hala?





ZURE TXANDA



**Ximon
Apezetxea**

Zein da krisiaren erruduna?

Bai al da krisirikan? Frontoiak betek, ...sagardotegik betek, ...kopako finaleko entradarik ez...

Rajoiek errua Zapaterorena dela dio...

O peskaterona...ja, ja. Oain serio, beti norbetteri bota behar zio errua, eta berak ere izango du errua.

Orain denak Obamari begira...

Zergatik, beltza delako? Bromak aparte, oain arteko Ameriketako Presidente gehienak bezela egingo dula. Kubakin intakoa ikusi da; seinale bat egin du biño embargo eta gauza seriok ez ditu kendu.

Zuk zertan nabaitzen tzo krisia?

Hemen ezta asko nabaritu oaindikan ta espero ez nabaitzea.

Zuk ezagutu al duzu honelakorik?

Oaingo egoera berdintsuk ezautu zandutut.

Noiz bukatuko da krisia?

Jendea pixkot gerrikoa estutzen hasitzen ganen.



**Mikel
"Errota"**

Zer esan zizun enpresak parora bializintuztenean?

Lana asko jeisten ari zela eta kontratok luzatzeko arazokin zabilzala eta nahiko lan izango zutela niri ere kontratua luzatzen.

Zertan aldatu du zure bizitza langabezia egoteak?

Bueno, ni sekula egotekoa nintzen paroa kobratuz ta egia esan, ez da hain geizki bizitzen, ze leno denbora librea banun miño oain gehio.

Orain arte bai al zenekien krisia zer zen?

Krisia zer zen entzuna nun baina nik ez nun sekula bizittua, ze lanen hasi ezkerotik ez nun parotik kobratu beharra izando.

Nola ikusten du etorkizuna 27 urteko langabetu batek?

Nik uste oraindik gaztea naizela beste lanen bat harrapatzeko. Okerrago izango zen 50 urtetik gora edukiko banitu.

Langileei I.R.P.F bidez kendutako dirua bankoei ematen die orain Estatuak. Nola ikusten duzu hori?

Nik uste lehen bankuek gaizki gestionatu zutela beraiena ez zen dirua eta orain ere beraiena ez den dirua ematea ez zait ongi iruditzen, ze beraiek sortutako zuloa tapatzeko erabiliko dute.

Abudo xamar bukatuko ote da krisia?

Esaten dute beste pare bat urteko gauza izango dela, baina espero lehenagotik gauzak aldatzen hastea.